

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GILLERNAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Hasierako onespena ematea estolderia eta arazketa eta horren tasak arautzen dituen ordenantzari

Gillernako Kontzejuak, 2021eko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea hondakin uren arazketaren eta estolderiarako hartunearen zerbitzua eta haren tasak arautzen dituen ordenantzaren aldaketari.

Eta hori jendaurrean jartzen da, interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak egin ditzaten. Erreklamazioak idatziz egingo dira, eta horretarako hogeita hamar egun izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Erreklamaziorik aurkezten ez baldin bada, behin-behineko erabaki hau behin betiko hartutakotzat emango da.

Gillerna, 2021eko urtarrilaren 11

Errejidore-lehendakaria
ANDRÉS LAFUENTE OTXOA